



ATE IREKIEN JARDUNALDIA KONPOSIZIOA

Nori zuzenduak?

Graduko ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten **konposizio** ikasleei

Sarrera probak 2021-2022 edo 2022-2023 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Orientazio Jardunaldi honek bi atal ezberdin izango ditu eta erabat **online** egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **[izena emateko orria](#)** betez. Epea **2021eko apirilaren 18an** amaituko da.

Jardunaldien helburua

Konposizioan Gradua egin nahi duten ikasleei Musikenen espezialitatearen irakaskuntzaren ezaugarrien inguruko informazioa luzatzea, eta sarrera proben egituraren eta eskatzen den mailaren inguruan orientatzea.

Jardunaldiaren egitura

Bilera informatibo orokorra

Apirilak 23, ostirala, 12.30etan

Ordu beteko bilera informatiboan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak,osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak.

Espezialitateko irakasleekin saioak

ERKOREKA, GERENABARRENA, LAZKANO eta SCARANI
Apirilak 24, larunbata, 10:30etan

M^a Eugenia Luc-ek ere parte hartuko du moderatzaile gisa

- Espezialitatearen irakasgai nagusiak aurkeztea.
- Sarrera probaren ariketa ezberdinen inguruko orientazio zehatza.
- Irakasleen eskutik arreta pertsonalizatua
- Topaketaren iraupena: ordu t'erdi inguru

Izena ematen dutenek esteka bat jasoko dute online saio bakoitzaren bezperan.

Konposizio jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan M^a Eugenia Luc Analisi, Konposizio, Zuzendaritza eta Teknologien departamentuko buruarekin: **mluc@musikene.eus**